

SAILKAPENA: **2.7 bestelakoak.**

IZENA:

Armarria.

HELBURUA:

Gai baten ibilbide historikoa taldean aztertzea.

DENBORA:

60 minutu.

LEKUA:

Garrantzitsua da, papelotea itsasteko pareta handia eta garbia beharko baitugu.

TALDEAREN BALDINTZAK

Pertsona kopurua: 12 gutxienez/ 30 gehienez.

Taldearen egoera: Egonkortuta dagoen taldearekin egiteko aproposa.

AZALPENA:

Talde txikietan bildu eta armarri bat marraztu beharko dugu. Armarri horrek bi aurpegi edo alde izango ditu, bata iraganekoa errealitatea islatuko duena, eta bestea gaur egungoa. Taldean adostu beharko dugu iraganeko eta gaur egungo aldean zein irudi marraztuko ditugun. Armarriak taldearen ibilbidea edo egoera jakin baten argazkiak izango dira. Talde txikietako lana amaitu ondoren, talde handira eramango dugu eta azpi talde bakoitzetik bozeramaile bana atera beharko da egindako lana azaltzera. Amaieran, antzekotasunak eta ezberdintasunak, guztion artean komentatuko ditugu.

MATERIALA:

Rotuladoreak, margoak, papelografoa eta zela.

OHARRAK:

ITURRIA:

Ezezaguna.